

BERGARAR ONENAREN SARIA: 150 € - IZAR ODRIUZOLA ARISTEGI  
(Bergara, 20 urte)

Hain abstraktu zaren horri,

Ez dakizu nondik ari natzaizun gutun hau idazten eta ez dakizu zer dudan nire begien aurrean. Bada denbora azkenekoz idatzi nizunetik; lehen, inertziaz idazten nizun, baina zure zalantzak eta erantzun ezak zirela medio, nekatu egin nintzen, aspertu erantzuten ez zidanari idazteaz. Ordea, bi urte pasa eta gero, nahiz eta gure krisitxoa jasan, esan dezaket zu ulertzen –eta maitatzen- hasia naizela. Zuganako sentimendua arantzaz beteriko zalantza bat zen; orain berriz, ez dakizu zalantza horretatik loratu den hori zein ederra bilakatzen ari den.

Bai, dagoeneko hasia naiz zure nondik norako eta buruhausteen berri izaten, eta atsegin ditut. Gehiegi. Eta zuk ere badakizu hori. Zuri buruz hitz egin zidaten lehen aldian, kuriositatea piztu zitzaidan barrenean, zurekin eta zugandik gehiago ikasteko gogoia. Begira nola gauden orain; nire bizitzan patu transzendental bat markatu zenuen nahigabe bada ere, eta gurarika nabil, zure esentzia nigandik urrundu ez dadin.

Badakit batzuetan ez zaizula nire alferkeria gustatzen, zerbait izatekotan, langilea eta kritikoa baitzara. Oso zuzena agian, gutxitan geratzen zara gustura aurrean aurkezten zaizunarekin. Zerbait gehiago bilatzen duzu, harantzago zoaz, eta nik batzuetan ezin zaitut atzeman. Aitortzen dut, batzuetan ez dudala zure logika garatzeko mekanismoa ulertzen; ez diot zentzurik aurkitzen nahiz eta ahalegindu. Zu ostera, ez zara nekatzen kontzeptuak azaltzeaz, eta nik jakin-minez entzuten zaitut, noizbait zuk besteko jakituria izateko irrikaz.

Oso ebidentea den zerbait ere ukatu daitekeela irakatsi zenidan behin, eta ez dakizu nolako arrazoia zenuen. Zugandik gehien gustatzen zaidana, hain zuzen ere, gauzeekin itzulipurdika ibiltzeko duzun joera hori da, kritikotasun puntu hori, aseezintasuna bizitzari bere funtsa aurkitze bidean.

Nire jarrerari funtsa aurkitzen saiatzen naiz orain, baita gure erlazioari berari ere. Askok ez dute ulertzen gure konexioa; ez dute ulertzen nola aldatu nintzen Gasteizen bizitzetik Donostia konkistatzera, zure faltaren kariatz. Baina egiari zor, Gasteizen ere, nahiz eta fisikoki ez izan, ikusten zintudan. Gurasoek azkar utzi zidaten etxebizitzaz aldatzen, bazekiten zurekin egotea zela komeni zitzaidana, eta era batera, Gasteizen bizitakoa iragankorra zela. Zenbat zalantza zure aldeko pausua ematerakoan... jakinekoa duzu nire inguruan ez zela hain ongi ikusia izan aldaketa hori. Izan daiteke zure adinarengatik, bai, badituzu zure urtetxoak, edo erlazio anakroniko bat bailitzan irudikatzen zutelako. Baina badakizu zer? Gure artekoak ez du ez adin ez espazio/denbora kontzeptuen beharrik. Hori bai, ziurtzat jo ez garela ezkonduko: Diogenes Laerziok zioen moduan “gazteak garenean oraindik ez zaigu iritsi ezkontzeko adina, eta helduak garenean, jada berandu da”.

Laburbilduz, esan nahi nizuke zugan dutela sorburu bizirauteko hain beharrezko ditudan inspirazio, kuriositate eta bertuteak. Zu gabe, ez naiz; ni-a zurekin osatzen baitut. Ez ezazu gaizki ulertu erromantiko jarri banaiz, ez naiz gure arteko botere harreman bati buruz ari eta. Pentsatzen dudana da, eta jada ez dakit arrazoimenari edo sentimenduei sinetsi behar diedan, baina ezin dut ezer egin, zu baitzara nire gaitzak sendatzeko botika bakarra; bizitza deituriko trintxera honetan, etsaiari aurre egiteko ezinbesteko dudana artsenala. Nirekin duzun harremana osteratzen, beste askorekin ere baduzu, baina badakizu, zenbat eta gehiago, hobe.

Bai, maitea, ispilu aurrean nago, orri batzuetan zugarako sentimenduak azalera erakusten, nirekin, baina zuri begira. Toki guztietan zaude, edo ikusten zaitut, baina ez duzu Jainko itxurarik. Ez dut zure izena aipatu ez nuelako beharrik ikusten, baina paradoxikoa da, zure izenak ere maitasun hitza baitarama berarekin. Maite zaitut, eta maite dut nire pertsonarekin eraikitzen ari zarena eta garena, ze finean, horretarako etorri zinen nire bizitzara: lur hartzen dugun harea mugikor hauetan, finkatuta geneuzkan heldulekuak deseraikitzen.

Zure aktibitatearen ordena eza da pertsona askok zuri nazka izatearen arrazoiak, deserosoa da zure presentzia. Munduak zure behar geroz eta handiagoa du, baina tamalez, antzinako Grezian Sokratesekin pasa zen moduan, oraingo botereak ere beldur dizu, axiomatzat ditugunak zalantza bihurtzearen, kritikoki pentsatzearen, alegia. Askotan ez ditut erantzunak aurkitzen zure baitan, baina orain badakit galdera ongi formulatuak ere pisu bera dutela. Ez dakite galderetan gaitzak nolako plazera suposatzen duen.

Dena dela, ez pentsa erresistentzia atzean geratzen denik; hemen gaude zure indar eta liluraz maitemindurik. Mila esker nire bizitzan zerbait abstraktu gisa agertzearen, eta denboraren poderioz, finko bihurtu beharrean are abstraktuago bilakatzearren. Bizitza ematen didazu eta abstraktuaren forma eza maitatzen ikasi dut. Eta badakizu zer den onena? Ez zaidala zure inguruan dudana kuriositatea inoiz itzaliko, Filosofia.

Nigan loratzen jarraituko duzulakoan, Αστέρη